

NOLA BETE GOBERNU-ORGANOKO KIDEEN ALDAKETEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA. JARRAIBIDEAK.

1.- Elkarre eta federazioek Autonomia Erkidegoko Elkarre Erregistroari honako kargu hauetan gertatutako aldaketen berri eman behar diote: presidentea, idazkaria, diruzaina eta, hala badagokio, kide anitzeko gobernu kideak. Horretarako, hilabeteko epea izango dute, Batzar Orokorrek dagozkion erabakiak hartzen dituenetik aurrera zenbaturik.

2.- Elkarreak edo Federazioak estatutuen aldaketa bat aurkezten duenean gobernu-organoa osatzen duten pertsonak aldatzeko, Zuzendaritza Batzordea ere aldatu beharko du; izan ere, inskribatu nahi dituen estatutuetan ezartzen dena egokitu beharko baita Zuzendaritza Batzordea.

Elkarrearen edo Federazioaren estatutuak ez badira eguneratzen, Zuzendaritza Batzordearen aldaketak ez dira inskribatuko.

3.- Zuzendaritza Batzordearen aldaketak Erregistroari komunikatu behar zaizkio, nahiz eta kargu berak antolatu.

Elkarreak edo Federazioak ez badu bete gertatutako aldaketak (presidentea, idazkaria, diruzaina eta, hala badagokio, kide anitzeko gobernu kideak) Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroari komunikatzeko betebeharra, edo aldaketak ez badira gauzatu estatutuarean aurreikusitako epeetan, Zuzendaritza Batzordearen aldaketa eskatzen duen unean erantzukizunpeko aitortzen bat aurkeztu beharko du, adierazteko zein izan diren horrela jokatzeko arrazoiak (aitortzen presidentea izenpetuko du, edo, bestela, idazkariak ziurtatuko du, presidentearen oniritziarekin).

4.- Aurkeztuko da Batzar Orokorrek elkarrearen gobernu-organoko kideak kargutik kendu eta, hala badagokio, izendatzeko erabakia hartzeko egindako bileraren akta edo ziurtagiria, idazkariak emandakoa, presidentearen oniritzia duena. Bertan, bileretara bertaraturakoen quoruma eta bozketaren emaitza adieraziko dira, bai eta kargutik kendutakoen eta, hala badagokio, izendatutakoen izen-abizenak ere. Kide berriak izendatuz gero, karguak onartu dituztela edo karguez jabetu direla ere adieraziko da aktan edo ziurtagirian.

5.- Gobernu-organoko kideen aldaketen artean presidente edo idazkariarena baldin badaude, kargu horiek uzten dituztenek eta izendatutakoek izenpetu beharko dute akta edo ziurtagiria.

Kargutik kendutakoek ezin badute sinatu edo arrazoirik gabe uko egiten badiote sinatzeari, izendatutako presidente edo idazkariak inguruabar horien berri emango dute zinpeko adierazpen bat aurkeztuz.

6.- Gobernu-organoko kide batek kargua uzten badu, aldaketa horren berri ematen duen ziurtagiria egingo du idazkariak, presidentearen oniritzia duena, eta bertan, kargu-uztea noiz gertatu den adieraziko da. Bestela, helbidearen arabera elkarreari dagokion eroldaren lurralde-bulegoko arduradunarengana bertaratu daiteke kargua uzten duen pertsona, eta nortasun agiri nazionalaren edo lege baliokidea den beste agiri baten kopia eta kargua uzteko idazkia behar bezala izenpetuta aurkeztu.

7.- Gobernu-organoko kide baten heriotzaren edo heriotza-deklarazioaren ondorioz izandako aldaketa aurreko atalean aipatutako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da edo, bestela, beste era honetara: zendutakoaren ondorengoak erregistroaren lurralde-bulegoko arduradunarengana bertaraturik eta hari Erregistro Zibilaren heriotza-ziurtagiria edo heriotzaren deklarazio judiziala aurkeztuz.

8.- Kudeaketa-organuari ez bazaio baimenik eman izendatutako pertsona fisiko berrien NANA konprobatzeko edo egiaztatzeko, pertsona fisiko horiek beren identitatea egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute; ordezkaritza bidez badihardute, berriz, ordezkaritza.

9.- Pertsona juridikoen kasuan, organo eskudunaren erabakiaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, pertsona juridikoa ordezkatzen duen pertsona fisikoa izendatzen duena.

Saiatu estatutuak idaztean hizkera ez-sexista erabiltzen, eta gobernu-organoetan gizonezkoen eta emakumezkoen kopurua orekatzen, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezartzen duen bezala.

Ematen dizkiguzun datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko dira: ELKARTEEN ERREGISTRO OROKORREAN. Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza da aipatu erregistroaren titularra (Donostia-San Sebastián kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz), eta haren helburua, Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteak eta elkarten zuzendaritza-batzordeetako kideak erregistratzea, aldez aurretik Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazita, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak hartuta.